


Langabezia tasa % 5,7ra jaitsi da bigarren hiruhilekoan

Langabezia -tasa
Ehunekoa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **2025eko bigarren hiruhilekoan, Euskadiko langabezia-tasa urte arteko %1,8 txikitu zen %5,7an kokatuz. Hau 2008tik gaur egunera arteko daturik onena da.** Era berean, 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, 17.600 landun gehiago daude, eta 19.700 langabetu gehiago.

BPG %2,2 hazi zen bigarren hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, **Euskadiko BPG %2,2 hazi zen 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.** Urteko lehen hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,5ekoa izan zen. Era berean, enpleguak bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, urte arteko %1,4ko hazkundera izan baitzuen.



Esportazioak % 0,6 gutxitu ziren maiatzera arte

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urtarriletik maiatzera bitartean. Milioika euro




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu azken datuen arabera, **EAEko atzerrirako esportazioek 12.984 milioi euroko balio metatua izan zuten urtarriletik maiatzera bitartean**. Aurreko urteko aldi berean baino % 0,6 txikia goa izan arren, 1.677 milioitik gora-ko merkataritza-saldo positiboa mantendu da. Maiatzeko urte arteko aldakuntza – % 10,1 jaitsi da.

Kontsumoko prezioak %2,8 hazi ziren ekainean

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken datuen arabera, **KPIak gorantz jarraitu zuen, ekainean % 2,8koa izan baitzen, aurreko hilean baino lau hamarren gehiago**. Hori elikagaien prezioen igoeraren eta produktu energetikoen jaitsiera txikiagoaren isla da. Halaber, azpiko inflazioak gora egin zuen, % 2,5etik % 2,7ra